



Aristizabal 9, behea 20120 Hernani
Tfnoa: 943/ 33.60.80 Faxe: 943/ 33.63.47
E-mail: askagintza@euskalnet.net
www.askagintza.com

DROGEN AURKAKO GERRA ZORIONEZ GALDUA DUTE.

Komunikabideek mundu mailako gerra gertakarien berriak zabaltzen dituzte, denak gainera hain modan dagoen kutsu prebentiboarekin. Iraken prebentzio gerra, Israelen prebentzio erasoak, Afganistanen laguntza humanitarioa. Ildo militar honi atxikirik azaltzen dira Elena Salgado Osasun eta Kontsumo Ministro berria eta Carmen Moya Drogen Plan Nazionalerako Gobernuko Delegatu berria, **"drogen aurkako gerra ez dutela galduko"** aho batez esanez. Honen oinarria badirudi duela gutxi ospatu omen diren "drogen aurkako olinpiada Europarretan" Madrilek irabazitako dominak direla (Espainiak kokaina kontsumoan urrezko domina, cannabisean brontzezko domina eta estasian diploma olinpikoa). Askagintzatik uste dugu bide hau jarraitzea ez dela zuzena, oker dabilzala, zorionez **drogen aurkako gerra aspaldi galdua** baitago, urteak daramagulako **drogak dauden gizarte honetan aske bizitzearen alde lanean.**

Jakin badakigu drogamendekotasunen fenomeno sozialaren errealitate batzuk kezagarriak direla. Jende askok itxaropenak jarriak zituen **"ZP birusean"**, egoera horiek aldatuko zituela pentsatuz. Baina memoria historikoaren altxorra arakatuz **"FG txertoa"** aurkitu dezakegula ezin dugu ahaztu. Egungo egoeraren aurrean eszeptikoak gaude, **drogen aurrean hartu diren politika debekatzailen porrota** errekonozitzeko "talantea" baino zertxobait gehiago behar delako. Ez dugu ahaztu behar horiek berak sortu zutela Hiritar Seguratasun Legea edo Corcuera Legea, bai, atean ostikada ematearena. Hasiak dira aldaketak egiten, momentuz ministerioz aldatu dute (Barne Saitetik, Osasun sailera), baina ez daitezela hor gelditu. Hasi daitezke hariak berak sortutako baliorik gabeko lege hori indargabetzen. Etorkizuna itxaropentsua denik ezin esan, laino beltzak datoz.

Egungo egoera makurrak-makur, ezin du okerragora joan: ustelkeria kasuak arlo politikoan, polizialean, ekonomikoan eta sozialean, droga kontsumitzaile hutsa izateagatik pertsekuzioak, sekulako landaketen konfiskazioa, askotan lau loreontzi soilik, legeztatutako eta legeztatu gabeko drogak modu konpultsiboan kontsumitzeko joeraren handitzea, droga kontsumitzen hasten deneko adinaren jaitsiera, drogen kontsumoak berez dituen arriskuen sinesmen eza edo pertzepzio

eskasa, polikontsumoaren edo substantzia bat baino gehiago kontsumitzearen ondorioak, patologia dualak, hiritar eskubide demokratikoen errespetu eza, espetxeetan pilaketa eta bizitza baldintza penagarriak...

Baina joko honetan tranpa, iruzur, egiten ari dira. Alde batetik Cannabis deribatuetan ez legeztatzearen alde azaltzen dira, osasun arazoak sortzen dituztelako (hau gezurra denik ez dugu esango) eta bestaldekik aitortzen dute tabakoa eta alkohola direla heriotza, osasun arazo, istripu, tratu txar... gehien sortzen dituzten drogak direla. Prozesu logiko eta koherenteena droga guztiak debekatzea litzateke, baina egiten duten bakarra bi substantzia horiei zerga eranstea besterik ez da, osasun sailaren defizita jaisteko baliagarria suertatzen baita.

Debekuaren politika jarraitu eta drogen gaia hutsalkeriaz azaldu dutenek izandako porrotaren lekuko zuzenak eta pribilegiatuak izan gara. "Drogei ez esan" eta "Drogak ez dira txarrak, onak, politak eta merkeak nahi ditugu" jarrerak eta ikusmoldeek ez dute irtenbiderik. Uda hasieran burutu genuen VII Asanbladan **egungo droga politikak premiazkoa duten aldaketa bultzatzearen** alde lan egiteak lehentasuna zuela ikusi genuen, aldaketa hori ematea posible dela sinesten dugulako. Fenomeno honen inguruan eztabaida soziala egitea behar-beharrezkoa ikusten dugu, orain arteko eztabaida kamutsetan erori gabe eta drogen inguruan dauden ikuspuntu partzialak eta estereotipatuak gaindituz eta drogak egon direla, daudela eta aurrerantzean egon direla onartuz. Baina orain arte jarraitu dugun bideari eusten diogu, salatu egiten baitugu drogarik gabeko gizartea eta abstinentsia aldarrikatzen duten mezu hipokritak. Ez gaitezen hipokritak izan, guztiok baititugu "gure drogak" eta "gure kontsumoak", zergatik hasi "besteena" gaitzesten, debekatzen, zigortzen...

Politika debekatuak horien porrota onartu beharra daukate, hauek oztipoa besterik ez baitie jartzen prebentzio, tratamendu eta bergizarteratze programei. Bestalde baztertu egin beharko lukete beren helburu nagusia, hau da, **"Drogen eskaria eta eskaintzaren gutxitzea"**, honezkero ikusia dugulako handitu besterik ez direla egin. Bi pauso horiek ezinbestekoak lirateke bide berriari ekiteko.

Drogamendekotasunen Fenomenoaren normalizazioan aurrera egin behar dugu. Normalizazioa bultzatzeko Planen eta Programen oinarriak ondokoak lirateke: **drogen eskaria edo demanda arrazionalizatu, kontsumoa erantzukizun gehiagorekin** egin daitekeela sinistuz eta bultzatuz, arrisku asko dauden gizarte batean gaudela onartuz eta **eskaintza erregularizatuz** (droga ezberdinen ekoizpena, komertzializazioa eta kontsumoa), substantzien oinarritzko kalitatea ahalbidetuz eta droga trafikiko sareen mafiek salatzen aukera izatea, hauek ustelkeria politikoak, polizialak, ekonomikoak eta sozialak posible egiten baitute.

Estrategia komunitarioen eta parte hartze sozialaren alde gaude, kolektibo sozialen, hezkuntza-komunitatearen eta tokian tokiko instituzioen eginkizuna funtsezkoa dela uste dugulako. Horrela positiboki baloratzen dugu egun Eusko Jaurlaritzak Drogamendekotasunen Zuzendaritzatik egiten ari den esfortzu tekniko eta politikoa **Drogamendekotasunen inguruko V Plana** aurkezteko orduan. Metodologikoki egindako lana da Plan hau, eta horrela terminologia komun batez hornitzeko aukera ematen digu eta baita lanerako lege esparrua finkatzeko aukera ere. Honela, plan onek aukera eta instituzio ezberdinetatik **droga kontsumo arazotsuak murrizteko** lan egitea posible egiten du, beti ere abstinentzia nabarmendu gabe eta osasun heziketa eta drogamendekotasunen prebentzio unibertsala, selektiboa eta adierazia azpimarratuz.

Droga kontsumoetaz hitz egiteko aldez aurretik **zertaz ari garen zehaztea** komeni da, kontsumo hitzaren baitan ñabardura handiak egon daitezkeelako (droga mota, dosia, kantitatea, kalitatea, maiztasuna, nortasuna, testuingurua, arriskuak, sinesmenak, itxaropenak...). Bestalde kontutan izan behar ditugu gizon-emakumeek mendekotasunerako dugun joera, botereari, gauzei, irudiei eta droga kontsumitzeko beharrari ematen diogun garrantzia. Ezin ahaztu, ordea, bizi garen testuinguruan ematen den ezegonkortasun soziala, ekonomikoa, laborala eta emozionala eta bakoitzaren **bizitza estiloa, kontsumismoan, lehiakortasunean** eta plazerra **bat-batean** lortzeko joeran oinarritua dagoela batez ere. Gainera gure denboraren eta espazioen banaketa gero eta artifizialagoa da, gero eta nabarmenagoa delarik ematen diren ezberdintasunak asteko egunen eta asteburuaren artean, eta lan-ikasketa eta aisia garaiaren artean. Guzti honen parean azaltzen dira antsietatea, estresa, ziurtasun-gabezia, frustrazioa, ondoeza eta mina, min handia.

ASKAGINTZAK ez du ez gerretan, ezta batailetan ere sinesten. Kristauen "gurutzadak" eta drogen aurkako "gurutzadak", kultur arteko liskarrak besterik ez dituzte lortu. Honen guztia irabazle bakarrenetakoak militar eta ziurtasun industria izan dira eta galtzaileak hiritar eta herritarren eskubide demokratikoak.

Kultur ezberdinetara irekia egongo den gizartea eraikitzea da zailena. Horretarako pertsonak eta komunitateak drogamendekotasunik gabe aske bizitzeko gai garela sinistu beharrean gaude. Pertsonen eta herrien bizikidetasuna eta askatasuna bermatzen lagunduko duten arau eta muga batzuk ezartzea komeniko litzateke.

Horretarako sektore eta ideia ezberdinetatik lankidetzaren, kooperazioaren alde egin beharko genuke, guztion premia baitago.

Substantzien eta horien erabiltzaileen artean ematen den erlazioa erregulatu eta arrazionalizatu beharrean gaude. Horretarako premiazkoak izango ditugu arau eta muga batzuk, gazteagoen eta bitartekoen babesa bermatzeko. Baina ezin dugu ahaztu testuinguru sozial justuagoak eta gizatiarragoak lortzea gure xede nagusia izan behar duela.

Txus Congil
ASKAGINTZA
Hernanin 2004ko irailaren 29an